## VILLA ITXASALDE — ZUMALAKARREGI HIRIBIDEA 2

**D MAILA**







**Fernando Redón eta Javier Guibert, 1966**

**Deskripzioa**

Hotel frantses klasikoaren profila berrinterpretatzearren modernitateak eskaini aukera interesgarria. Etxeak mehelin bat partekatzen du sekzio bereko beste *villa* batekin, eta gainera oinplano trapezoidala dauka, Ondarretako lorategi hiriaren angeluan daukan kokapenagatik. Sotoa, beheko solairua, lehen solairua eta mantsardapeko solairua dauzka. Tximiniak txapitulekin konbinatuz ertzari eman soluzioa nabarmentzen da: lucarne-pignon motakoa da, eta hiruki erako frontoia du. Elementu horien arteko jarraitasun materialaren ideia modernitateari lotzen zaio, marrazkia eta baoen soslai garbia bezalaxe, kasu honetan adreilu pintatuzkoak baitira, kolorean zurezko arotzeriak egiten duen kontrasteaz osatuak.

**D mailaren babes araubidea**

1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: ez dago horrelakorik.
2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: estalkiak, txapitulak eta tximiniak.
3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe.
4- Nahitaezko lehengoratzeak: ez dago horrelakorik.